

Año LV. urtea

135 - 2023

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

Hazitik liliak

Zenbait ekarpen euskal ikasketen ikerketan

Olatz Leturiaga Angoitia
Aitor Lizardi Ituarte
Iñigo Urrestarazu-Porta
(editore gonbidatuak)

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 135. zk. - 2023

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

HAZITIK LILIAK. ZENBAIT EKARPEN EUSKAL IKASKETEN IKERKETAN

Olatz Leturiaga Angoitia, Aitor Lizardi Ituarte & Iñigo Urrestarazu-Porta
(editore gonbidatuak / editores invitados / guest editors)

Hitzaurrea	
Olatz Leturiaga Angoitia, Aitor Lizardi Ituarte, Iñigo Urrestarazu-Porta	7
Itxurazko egonkortasun linguistikoa eta hazkunde indexikala Bermeoko (lako) aldagaian	
Azler Garcia-Palomino	11
Euskararen intonazioaren aldakortasuna: monografien ekarpena	
Varun DC Arrazola	53
Jarraitu aditzaren erregimen-aldaketa testu akademikoen argitan	
Sergio Monforte	69
Urigoitiko hiztegitxoari buruz	
Asier Gonzalez Casado	101
Lizarrako gazteak: euskararen erabileran oinarritutako hiztun berrien profilak	
Ainhoa Pardina Arenaza, Mikel Pérez González	125
Ama idazleak Aitaren etxea (2019) eta Amek ez dute (2018) eleberrietan	
Aitana Albisua-Ortiz	151
Espazioaren eta ibiliaren errepresentazioak Pello Lizarralderen bi eleberritan	
Asier Urkiza Sánchez	175
Orixeren Mireio (1930). Literatura proventzarraren eta euskal literaturaren arteko zubia	
Maialen Fernandez Martinez	205
Euskarazko bideojokoen azterketa deskribatzailea lokalizazioaren ikuspuntutik	
Itziar Zorrakin-Goikoetxea, Maitane Junguitu Dronda	231
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	277

Jarraitu aditzaren erregimen-aldaketa testu akademikoen argitan

Cambio de régimen en el verbo *jarraitu* ‘seguir’ a la luz de los textos académicos

Change of verbal government: the case of *jarraitu* ‘follow’ in light of academic texts

Sergio Monforte

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

sergio.monforte@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0003-1995-6355>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv135.4>

Artikulu honen berrikusle anonimoei beren iruzkin arduratsuak eskertu nahi dizkiet, zalantza barik artikulu hau hobetzen lagundu baitute. Halaber, Olatz Leturiagari, Aitor Lizardi Ituarteri eta Iñigo Urrestarazuri eskerrak eman nahi dizkiet ale honetan egin duten edizio-lanagatik.

Jasotze data: 2022/10/24. Behin-behineko onartze data: 2023/05/06. Behin betiko onartze data: 2023/05/09.

LABURPENA

Artikulu honetan *jarraitu* aditzak duen absolutibo/datibo alternantzia aztertzen da testu akademikoetan. Helburua da argitzea testu horietan ugari den absolutiboaren erabilera euskara-erregistro espezifikoetara egokitzearen ondorioa ote den. Horretarako, bi balizko eragini begiratu diet: a) erdaratiko *segituren* erregimenari eta b) testu akademikoetako izen bizigabeen erabilera handiari. Bi hipotesiak frogatzeko, corpus historiko, egungo ahozko eta zientifiko-teknikoak aztertu ditut. Emaitzek erakusten dute testu akademikoek absolutiboranzko joera indartu dutela. Izan ere, izen bizigabeek absolutibo marka hartzeko duten joerak testu akademikoetan absolutiboa erabiltzea indartu du.

Gako hitzak: *jarraitu*; datiboa; absolutiboa; testu akademikoak; corpusak.

RESUMEN

Este artículo analiza la alternancia absolutivo/dativo del verbo *jarraitu* ('seguir') en textos académicos. El objetivo es aclarar si la proliferación del absolutivo en este tipo de textos es consecuencia de la adaptación del euskara a los registros específicos. Para ello, considero dos posibles influencias: a) el régimen del préstamo *segitu* y b) el gran uso de nombres inanimados de los textos académicos. Para comprobar las dos hipótesis, he examinado corpus históricos, orales actuales y científico-técnicos. Los resultados muestran que la segunda hipótesis es más adecuada. De hecho, parece que la tendencia a usar nombres abstractos en textos académicos ha reforzado el uso del absolutivo.

Palabras clave: *jarraitu* 'seguir'; dativo; absolutivo; textos académicos; corpus.

ABSTRACT

This article analyzes the absolutive/dative alternation of the verb *jarraitu* ('to follow') in academic texts. The objective is to clarify whether the proliferation of the absolutive marking in these texts is a consequence of adapting the grammar to specific registers. For this, I consider two possible influences: a) the regime of the *segitu* loan and b) the extensive use of inanimate nouns in academic texts. To test the two hypotheses, I examined historical, current oral and scientific-technical corpora. The results show that the second hypothesis is more adequate. In fact, it seems that the tendency to use abstract nouns in academic texts has reinforced the use of the absolutive case.

Keywords: *jarraitu* 'follow'; dative; absolutive; academic texts; corpora.

1. SARRERA. 2. JARRAITUDEN ERREGIMEN-ALDAKORTASUNA. 3. METODOLOGIA. 4. JARRAITU ETA SEGITU ADITZEN ARTEKO HARREMANA. 5. JARRAITU ADITZAREN ERABILERAK. 6. JARRAITU ADITZAREN ERREGIMENA TESTU AKADEMIKOETAN. 7. ONDORIOAK. 8. CORPUSAK ETA HIZTEGIAK. 9. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Hizkuntzek, estandarizatu eta normalizatu nahi direnean, hainbat urrats eman behar dituzte: a) kodearen hautapena, b) kodifikazioa, c) ezarpena eta, azkenik, d) lantze funtzionala (Haugen, 1983, 270. or.). Euskararen estandarizazioa 1960ko hamarkadan hasi zen, eta bere kodifikazioak, hots, bere ortografia, gramatika eta lexiko estandarra arautzeak, gaur egun arte irauten du (Zabala, 2018, 350.-352. or.), are gehiago hizkera akademiko eta espezifikoen kasuan, horiek 1970eko hamarkadan garatu gabekoak edo gutxi jorratutakoak baitziren (Etxebarria, 2002, 63.-65. or.; Zabala, 2018, 350.-352. or.)¹. Izan ere, hizkuntzek, aldaera estandarraz gain, gizartean guztiz normalizatzeko erregistroak garatu behar dituzte; garapen horrek, batez ere, berebiziko garrantzia dauka kodifikazio- eta estandarizazio-prozesua berriki egin duten hizkuntza gutxituetan (Zabala, 2008, 227.-228. or.). Estandarizatu gabeko hizkuntzetan, dena den, aldakortasuna badago, baina normalean ardatz dialektalean; ardatz funtzionalean, ordea, gabeziak edukitzen dituzte, are gehiago diglosia-egoean dauden heinean. Estandarizazioaren ondorioz, Sallaberryk (2002) eta Zabalak (2008, 217. or.) dioskutenez, dialektoak batzeko joera dago, baina ardatz funtzionalean kontrako joera igartzen da, hots, aldaera funtzionalak ugaritzen dira. Aldaera

1 Haugenek (1983, 271. or.) *zuzen* adjektiboa gehitzen dio kodifikazioan egiten den zereginari. Bere esanean, kodifikazioak preskripzioa areagotzen du; bestela esanda, hizkuntzak diren bezala deskribatu beharrean, hizkuntzaren arauak bateratzea eta arau bakarra estandartzat hartzea helburu duen prozesua dakar kodifikazioak. Hori dela eta, hizkuntz zuzentasunarekin lotzea saihestezina da eta, ondorioz, gizarte moderno mendealdarretan hitzunek hiztegi eta gramatika preskriptibistetara jotzen dute zuzentasun idealizatu horren bila, bere sena eta gaitasunak baztertuta (Milroy & Milroy, 1985, 5.-28. or.).

funtzionalen agerpen eta garapenak hizkuntza horren kodifikazioa areagotzea dakar eta, askotan, hizkuntza horren egoera soziolinguistiko ahula dela eta, hizkuntzalarien edo bestelako hizkuntza-adituen interbentzio handiagoa pairatzen dute (Zabala, 2008, 228. or.), testu espezializatuen bereizgarriak (terminoen garrantzia, izen-sintagma konplexuen ugaritasuna, nominalizaziorako joera, izen abstraktu edo bizigabeen erabilera zabala, diskurtso-errutina finkoen erabilera, ikus Martínez, 2007, 14.-15. or.; Zalbide, 1995, 282.-286. or., besteak beste) aintzat hartu gabe. Era berean, arloz arloko adituen ordura arteko erabilerak batzuetan albo batera uzten dira kodifikatzeko momentuan.

Jakina, kodifikazioa behar-beharrezkoa da eta gehienetan, gramatikaren aldetik behintzat, hizkera orokor eta estandarren arauak eta hizkera espezializatuenak bat etorriko dira. Dena den, ezin da ahaztu hainbat kasutan arlo bakoitzaren beharren arabera erabilera espezializatuak gramatika orokorretik aldendu eta gramatika hori arlo bakoitzaren beharrei egokituko zaiela (Martínez, 2007; Zabala, 2008, 228. or., 234. or.), nozio berriak eta diskurtso-errutinak ahalik eta modu egokienean azaltzeko. Hizkera espezializatuan aurki ditzakegun gramatika-egokitzapenen adibide batzuk dakarzkigute Zabalak (2008, 236. or.) eta Zabalak eta bestek (2014, 154. or.). Batetik, Zabalak (2008, 236. or.) erakusten digu *erantzun* aditzaren sintaxia murriztagoa dela hizkera espezializatuan, *materialak* bezalako subjektu abstraktua aditz horrekin bateragarria den arren, konbinazio horretan ezin baita mendeko perpausik onartu osagarritzat, hau da, *materialak erantzun du* predikatuak ez du *-(e)ladun* mendeko perpaus konpletiborik osagarri onartzen. Aldiz, hizkera orokorrean *erantzun* aditzaren subjektua gizakia izaten da eta, orduan, ez da horrelako murriztapenik dokumentatzen. Esaterako:

- (1) Materialek tentsioei erantzuten dieten moduaren arabera, ondoko material mota hauek bereizten dira... (Zabala, 2008, 236. or.)
- (2) *Materialek erantzun dute deformatu behar direla. (Zabala, 2008, 236. or.)
- (3) Jonek erantzun dit ez duela egingo (Zabala, 2008, 236. or.)

Bestalde, Zabalak eta bestek (2014, 154. or.) argudiatzen dute ez dela zilegi genetika molekularren esparruan ohikoa den *geneak adierazten dira* erabileraren kontra arautzea. Euskaltzaindiaren (2016) arabera, *adierazi* aditzak *du* motako aditz laguntzailea eskatzen du eta, hortaz, *da* motakoarekin batera agertzea ez da erabilera onartua. Aldiz, Zabalaren eta besteren (2014, 154. or.) esanetan, testuinguru horretan, hizkera orokorrean ez bezala, subjektu abstraktu edo bizigabea daukagu eta ulertu behar da, gainera, geneek informazioa transmititzen dutela, euren barrutik hain zuzen ere. Beraz, *loratu* eta *lumatu* aditzetan bezala, subjektuaren rol tematikoa barruko kausa da eta, predikatu horietan ohikoa den bezala, egitura ezakusatiboa erabiltzea zilegi da.

- (4) Geneak adierazten dira (vs *Jon ondo adierazten da). (Zabala et al., 2014, 154. or.)
- (5) Zuhaitza loratu da. (Zabala et al., 2014, 154. or.)
- (6) Txoria lumatu da. (Zabala et al., 2014, 154. or.)

(1) eta (4) adibideetan ikusten dugu subjektuak izen abstraktuak edo bizigabeak direla. Lakoffek (1993, 204.-205. or.) aditzera ematen digu mundu eta esperientzia fisiko zehatzetatik aldendu eta mundu abstraktu edo emoziozkoetara hurbiltzen garenean sartzen garela metaforaren eremura. Halaber, gogoan eduki behar dugu Temmermanek (2000 apud Zabala et al., 2014, 154. or.) dioela horrelako kasuetan, sintaxia bortxatzen den kasuetan alegia, arrazoinamendu metaforikoa dagoela eta horrek dakarrela erabilera berria zabaltzea jadanik hizkuntzan dauden antzeko formetara (cf. *adierazi* eta *loratu/lumatu* aditzen adibidea). Beraz, faktore horiek eragiten dute hizkera espezializatuan gramatika aldatzea; hainbatetan sintaxia murrizterantz joko dute aldaketek, baina beste hainbatetan ordura arteko mugak gainditzerantz. Azken batean, hiztegi-tan eta gramatiketan jasota ez dagoena ezin da beti okertzat hartu; hiztunen erabilerak ikertu eta aintzat hartu behar dira, are gehiago hizkera akademiko eta espezializatu-tuetan. Izan ere, sarritan kodifikatutakoa (hots, irakasten eta bultzatzen den eredu-a) eta erabilitakoa ez datoz bat, Timmisen (2015, 62. or.) ingelesezko estilo zuzen edo zeharkakoen irakaskuntzan ikusten duen bezala². Azkenik, Zabalak (2008, 233. or.) gogorarazten digu 1970eko hamarkadatik gaur eguna ereduak garatu direla eta, beraz, edozer baztertu aurretik erabilera horiek deskribatu eta ikertu behar direla, hizkera espezializatua garatzen eta finkatzen laguntze aldera.

Hortaz, argi dago hizkera espezializatuen ezaugarri eta beharrek eskatzen dutela hizkuntza, baina batez ere hizkuntzaren lexikoa, propietate eta behar horiei egokitzea, eta egokitze horrek hizkuntzaren gramatika aldatzea dakar funtzio berriak txertatu heinean. Azken urteotan ikusi dugu euskara unibertsitatean txertatzearen ondorioz euskal lexikoa erabilera berriei egokitu behar izan zaiela. Esaterako, begira diezaiozun *garatu* aditzari. *Orotariko euskal hiztegiaren* (Euskaltzaindia, 2023) arabera, *garatu* aditzak zuen eta duen adiera *hozitu* aditzaren berbera da, Elhuyarrek argitu bezala, *ernamuina hazten hasi* hain zuzen. Dena den, euskara beste esparru batzuetara, hots, hizkera jasora zabaltzearen ondorioz, gaur egun *garatuk* esp. *desarrollar* / fr. *développer* esanahia ere badauka. Halaber, *landu*, *igorri* eta *eroan* aditzek, besteak beste, zabaldu dute euren semantika arlo akademiko edo espezifikorako igaro direnean.

Era berean, badirudi hedapen semantikoak predikatuen morfosintaxian ere badue-la eragina, *jarraitu* aditzaren kasuan bezala. Artikulu honetan ikusiko dugun bezala, aditz horrek argumentu datiboa zein absolutiboa (aurrerantzean, *datiboa* eta *absoluti-bo*) hautatzen du osagarri hizkera orokorrean, nahiz eta Euskaltzaindiak (2016) datiboaren alde egiten duen. Hala ere, testu akademikoetan nabarmena da absolutiboaren aldeko joera.

(7) Ikasleek urratsak jarraitu behar dituzte esperimentuan.

2 Timmisen (2015, 62.-64. or.) erakusten du hizkuntzak irakasteko liburuetan, eta hedaduraz gramatiketan, estilo zuzena eta zeharkakoa markatzeko agertzen diren baliabideak ez datozela bat corpusetan azaltzen diren baliabideekin. Izan ere, irakaskuntza-liburuetan garrantzi handia jasotzen duten baliabide batzuek agerraldi gutxi dituzte corpusetan; aitzitik, ahozko hizkuntzan ohikoak diren eta corpusetan erraz aurkitzen diren beste baliabide batzuk nekez irakasten dira.

Okertzat hartzen den erabilera hori ez zukeen hizkera akademikoak eragingo; aitzitik, edozelan ere, bultzatu edo indartu egingo zukeen. Izan ere, hizkera orokorrean ere lekukotzen da, arestian esan bezala. Zenbait hizkuntzalarik (Fernández & Ortiz de Urbina, 2010) proposatu dute absolutibo/datibo alternantziaren atzean [+/- gizaki] tasuna dagoela; beste predikatu batzuen alternantziaren kasuan ere antzeko azalbidea eman dute Fernández eta Ortiz de Urbinak (2010) eta Odriak (2017). Hala ere, artikulua honetan argudiatuko dut tasun horrek ez duela azaltzen *jarraitu* aditzaren alternantzia agerian dagoen osagarrien distribuzioa eta, osagarriak aztertuta, predikatuak adierazten duten gertakaria mugimenduzkoa ez izateak edo predikatuaren osagarriak mugimendurik ez edukitzeak eragiten duela absolutiboa erabiltzea. Testu akademikoetan osagarri abstraktu eta bizigabeak nagusiki agertzen direnez eta, jakina, osagarri abstraktuak ezin direnez mugimenduzko gertaera baten parte-hartzaile izan, absolutiboaren erabilera indartu da. Horiek horrela, (7) adibidekoak bezalakoak ez lirateke akastuntzat hartu behar, hizkuntzaren eta, zehatzago, aldaera espezializatuen garapenaren ondorioztat baizik.

Artikulu honen helburua da erregimen-aldaketa hori corpus orokor eta akademikoen bitartez aztertzea, jakiteko testu akademiko eta espezializatueta ugaritzen den absolutiboaren erabilerak hizkuntza-adituen interbentzioa beharrezko duen edo, hizkuntzaren ohiko garapena denez, erabilera bereizia onartu behar den. Artikulua honela dago egituratuta: lehenengoz, *jarraitu* predikatuaren eta bere aldakortasunaren aurkezpena eskainiko dut; bigarren, ikerketa honetarako erabilitako corpusen berri emango dut. Jarraian, *segitu* aditzaren erregimenaren eraginik egon ote den aztertuko dut, eta aditz horren eta *jarraitu*ren agerraldiei ere erreparatuko diet, euren arteko elkarrenergina zein izan den argitzeko. Ondoren, *jarraitu* aditzaren erabilerak hartuko ditut hizpide, Euskaltzaindiak biltzen dituen horiez gain, egun testu akademiko eta orokorretan topatzen ditugun horiek ere identifikatzeko. Erabilerak identifikatuta, artikulu honen aztergaiari helduko diot, hots, erregimen-alternantzia daukan erabilerari begiratuko diot, bi irizpideren arabera: osagarri hartzen duten elementu lexikoen arabera eta corpus-motaren arabera. Azkenik, ondorioak aurkeztuko ditut.

2. JARRAITUDEN ERREGIMEN-ALDAKORTASUNA

XVIII. mendeko testuetan ikusten da (Mounole, 2011) hainbat aditzek paradigma aldatu zutela. Mounolek (2011, 346.-347. or.) diosku XVI. mendean aditz batzuen (*behatu*, *eutsi*, *jarraiki/jarraitu*, *lagundu*, *segitu*, besteak beste) subjektuak absolutiboa eta osagarriak datiboa hartzen zutela, baina XVIII. mendean aditz berberak beste erregimen bat zeukatela: batetik, Ipar Euskal Herrian subjektuak ergatiboa eta osagarriak absolutiboa hartzen zuten eta, bestetik, Hego Euskal Herrian subjektuak ergatiboa, baina osagarriak datiboa hartzen zuten (Fernández & Ortiz de Urbina, 2010, 130. or.; Mounole, 2011, 346.-347. or.). Azken urteotan, ematen du berkonfigurazio berri bat gertatu dela aditz horietako batzuetan; hizkuntza akademikoan gehienbat eta erruz lekukotzen dira berrikuntza horietako batzuk. Esan bezala, artikulu honetan *jarraitu* aditza aztertuko dut, aditz horretan gertatutako erregimen-aldaketa, hain zuzen. Egia esan, badirudi aditz hori ez zela Mounolek (2011) adierazitako norabidean aldatu, Ipar

Euskal Herrian behintzat. Hona XVI. eta XVIII. mendeetako erregimen desberdinetako adibideak:

- (8) Uste dizit *narraiola* ezin dukedanari [...] (Etxepare, 1545, EKC)
- (9) Holako düzü ardüran zure desira, zuñ enthelega erazi beütüzü, hersi *jarraikiten zaizüla*. (Maister, 1757, EKC)
- (10) Bere bihotz oroz Israel guzia *jarraikitzen zaio Absalomi*. (Duvoisin, 1859-1865, EKC)
- (11) Fundatzalle oen bi *alabai jarraitu zien* gogoan beste iru alabak ere [...] (Kardabera, 1761, EKC)

Gauzak horrela, ematen du Hego Euskal Herrian bakarrik aldatu zela aditz horren erregimena (11). Erregimena edozein zela ere, datiboz markatzen zen osagarria. Gaurko euskararen Euskaltzaindiak (1991, 2021) arautzen du aditz horren osagarriak datiboa hartu behar duela, seguru asko tradizioan lekukotzen den jokabidea aintzat hartuta. Honela dio:

Badaude zenbait aditz iragankor ergatiboaz gain beste izen sintagma bat ere nahi dutenak, baina azkeneko hau ez da absolutua, datiboa baizik: *ekin, jarraitu, eutsi, urten* (bizkaieraz), etab. (Euskaltzaindia, 1991, 229. or.).

Zenbait aditzek hartzen duen osagarria datiboan paratzen dugu. Aipa ditzakegu aditz horien artean, besteak beste: *ekin, jarraitu jarraiki, eutsi, begiratu, behatu, eragin*, e.a. (Euskaltzaindia, 1991, 232. or.).

Aditz intrantsitibo ergatibodun eta datibodunak dira *ekin, erreparatu* (Hegoaldean eta adiera batean behintzat), *eutsi, heldu, iritzi, jarraitu, itxaron*: ergatiboa eta datiboa hautatzen dute, baina ez dute ageriko objekturik hartzen. Adizki laguntzailean baino ez da ageri absolutiboaren komuntadura marka (Euskaltzaindia, 2021, 897. or.).

Argi dago, beraz, datiboaren alde egiten duela, ez baitu beste aukerarik aipatzen; are gehiago, esaten digu osagarria ez dela absolutua. Beraz, ulertu behar da, ergatiboz markatutako subjektuaz gain, predikatu horretan agertzen den beste osagarriak ez lukeela absolutibo-marka hartu behar, datiboarena baizik.

Hala ere, ez da zaila idazle klasikoengan kontrako adibideak aurkitzea, baita egungo ahozko corpusetan ere, baina batez ere, erruz, testu akademikoetan. Fernándezen eta Ortiz de Urbinaren (2012, 90. or.) arabera, gaztelaniaren patroia ikusten da datibo/absolutibo alternantziaren banaketan, [+ gizakia]dunek datiboa eta [- gizakia]dunek absolutiboa hartzen baitute. Halaber, iradokitzen dute hiperzuzenketaren ondorioz [+ gizakia] diren osagarriek absolutiboa har lezaketela. Hala ere, lan honetarako horrelako kasuak topatu badira ere, bakanak dira, eta Datiboaren Lekualdatzearekin (Duhalde, 2023) lotuta egon litezke. Izan ere, nabarmenagoa da datiboa/absolutiboa

alternantzia indartu dela eta ez datiboz markatzen ziren osagarri horiek orain absolutiboz markatzen direla. Heinek (2003, 589.-590. or.) eta Zuloagak (2022) dioten bezala, hizkuntzen barruan gertatzen diren aldaketak ez dira $A > B$ bezalakoak, hau da, B aukera agertzen denean, A aukera ez da instantean desagertzen; aitzitik, A eta B aukerak batera erabiltzen dira denbora-tarte batean. Egoera horrek iraungo du hizkuntzen ekonomia-hatsarreak polimorfismo horren kontra egin arte; orduan, ordezkapen- edo espezializazio-mekanismoak martxan jarri eta, beraz, edo horietako bat desagertuko da, edo funtzio bereziak hartuko dituzte. Oraingo ikergaiak polimorfismoak espezializazio-bidea hartu duela proposatuko dut. Ikus ditzagun *jarraitu* aditzaren osagarria absolutiboz markatutako hainbat adibide:

- (12) Eta *jarraiturik* ejiptoarrak aurretik zijoazenen *aztarnak*, arkitu zituzten etzauntzetan itsasoaren aldean, Faraonen zaldizko guztiak, eta kotxeak, eta ejerzitu guztia zeuden Fihahirothen Beelsefonen aurrean. (Uriarte, 1858-1859, EKC)
- (13) (*contra*) Onekin nai zuela, Jaungoikoa billatu zezatela, *aztarnai jarraituta* [...] (Uriarte, 1858-1859, EKC)
- (14) Orregatik ezin *jarrai zezakeala*, uts egin nai ezpazuen, artu zuen *bidea* (Kardabera, 1882, EKC)
- (15) Hau behera basarritik pistia behera doiena *jarraituta* bertara doia (Bergara, aho-tsak.eus)
- (16) [...] liburuaren bigarren zatian emandako *arauak jarraituz*, hamabost datuak sartu ditugu. (Etxeberria, ZTCorpusa)
- (17) [...] laginketa-estazio definitu ziren, gazitasun *gradienteak jarraituz*, eta granulometria desberdinak kontuan hartuta. (Barruetabeña eta beste, ZTCorpusa)

Adibideetan ikusten da osagarri berari datiboa eta absolutiboa esleitzen diola autore berak (12 eta 13). Egoera nahasgarri horretaz ohartarazten digute Fernándezek eta Ortiz de Urbinak (2010) datibo-kasuari eskainitako lanean. Bertan, datiboaren absolutiboarekiko alternantzia aztertu zuten, besteak beste, eta *jarraitul/jarraiki* aditzen jokaerari begiratu zioten. Hiru jokabide hauek bereizi zituzten: a) datiboa gehienbat helburu-argumentuekin erabiltzen da, eta ez gai-argumentuekin (Fernández & Ortiz de Urbina, 2010, 158. or.)³; b) aldiz, inesiboa ere har dezakete argumentuek, ekintza/

3 Odriak (2017, 183. or., 204. or.) erakusten du egitura arazleetan helburu-argumentuak ez duela komunztadurarik egiten:

(i) Taxistari kotxe bati jarraituerazi diote. (Odria, 2017, 183. or.)

(ii) Epailak droga-saltzaileari jarraituerazi zuen. (Odria, 2017, 204. or.)

Idea horren ildotik, aztertu dut ea antzeko jokabidea lekukotzen den osagarria absolutiboz markatzen denean, eta, espero zen bezala, horrelako kasuetan ere helburu-argumentuak ez du komunztadurarik egiten:

(iii) Irakasleak ikasleei esperimentuan urrats horiek jarraitu / segituarazi zien / *zizkien.

aspektu adierazten dutenean (Fernández & Ortiz de Urbina, 2010, 28. or., 111. or.); eta, c) absolutiboa ere izan daiteke aditz horien osagarria. Azken kasu horretaz esan zuten *segituren* antzera jokatzeko dutela, hots, beste adiera bat daukatela: «seguir una línea de conducta, una costumbre, un precepto, un ejemplo, etc.» (Fernández & Ortiz de Urbina, 2010, 73. or.). Baina, hala ere, ez da oso alternantzia emankorra, euren ustez. Artikulu honetan batez ere azkenengo kasuari erreparatuko diot, datibo/absolutibo alternantziari, alegia, eta aztertuko dut testu akademikoetan absolutiboaren aldeko joera zerk bultzatzen duen. Izan ere, baliteke (c) oso emankorra ez izatea testu orokorretan, baina, artikulu honetan erakutsiko dudanez, bestelakoa da egoera testu akademikoetan, *portaera*, *eredu*, *arau* eta tankera horretako izan abstraktuak osagarri hartzea ohikoa baita. Horiek horrela, bi hipotesi arakatuko ditut, aintzat hartuta alternantzia testu-mota guztietan azaltzen dela, absolutiboaren erabilera testu akademikoetan nabarmenagoa bada ere, arestian esan bezala: batetik, erdaratiko *segitu* aditzaren erregimenak *jarraiturenari* eragin diola eta, bestetik, testu akademikoetan erruz baliatzen diren izen abstraktuek areagotu dutela.

Alternantzia horren atzetik inguruko erdaren eragina egon liteke, Fernándezek eta Ortiz de Urbinak (2012, 90. or.) iradokitzen duten bezala. Beraz, onartzen badugu *jarraituren* osagarria datiboz markatzen zela jatorriz eta hainbat kasutan absolutiboa erabiltzea berrikuntza dela, zerk bultzatu ote zuen aldaketa? Pentsa liteke kalko morfosintaktikoa dela, Alberdik (2010, 28. or.) *behatu* aditzerako proposatzen duen bezala, gaztelaniaz akusatiboa erabiltzen baita ez-gizaki argumentuekin⁴. Are gehiago, erdaretatik *segitu* aditz-forma ez ezik, bere erregimena ere mailegatuko zen, eta bere erregimenaren eragina izan zitekeen *jarraituren* aldaketaren eragilea, *segitu* aditza erabiltzen baita euskalki guztietan *jarraitu* adina edo, hainbat kasutan, *jarraitu* baino gehiago. Joera hori indartuko zen azken mendean, erdaren indarra handitu ahala (Alberdi, 2002; Montoya, 2004; Zalbide, 1995, 289. or.), eta, ondorioz, eragin hori garabidean dagoen hizkera akademiko eta espezializatueta hedatuko zen. Izan ere, ikusiko dugun bezala, hizkera orokorrean ez bezala, hizkera akademiko eta espezializatueta *jarraitu* askoz gehiago erabiltzen da *segitu* baino, eta, azken batean, horrek eragin ahalko zukeen *segituren* erregimena *jarraitura* hedatzea, bi aditzek adiera bera dutenez, morfosintaktikoki parekatu ahalko baitzituzten hitzunek. Lehenengo hipotesia, beraz, horixe izango litzateke.

Bestalde, testu akademikoetan absolutiboaren erabilera handiagoa dela ikusita, pentsa liteke testu-mota horren ezaugarriek (izen bizigabe eta abstraktuen ugaritasunak edota diskurtso-errutinek) indartuko zutela absolutiboaren aldeko erabilera. Bestela esanda, *widening* edo *hedapen semantiko* delako fenomeno dugu hemen. Euskaraz

4 Alberdik (2010) kalko-motak aztertzen ditu lan horretan eta, batez ere, hizkera teknikoari dagozkion kalkoak. Alberdik (2010, 30. or.) diosku sintaxia oso iragazkorra dela eta, beraz, jatorri-hizkuntzaren balio edo funtzioak helburu-hizkuntzan parekiderik baldin badu, ez dago mailegatzeko oztopo handirik. Horrelakoetan morfosintaxia bakarrik mailegatzeko da, jatorrizko hizkuntzaren lexema erabiltzen baita. *Behatu* aditzaren kasuan euskaraz datiboa hartzen zuen bere osagarriak, baina gaztelaniaren eraginez absolutiboa ere hartzen du orain, gaztelaniaz akusatiboz markatutako osagarri zuzenak eta euskaraz absolutiboz markatutakoak parekatuta.

fenomeno hori ez da ezezaguna, azken urteotan hizkera akademikoaren garapenaren-gatik lehenengo atalean jorratutako *adierazi*, *erantzun* bezalako hitzek, baita *hausnartu*, *jorratu*, *landu*, *arlo* lakoek ere, zabaldu baitute euren jatorrizko adiera. Beraz, proposa liteke *jarraitu* aditzaren kasuan ere zabaldu egin dela bere ohiko adiera edo, beharbada hobeto esanda, bigarrenkaria zen adiera indartu dela. Izan ere, testu akademikoetan, orokorretan ez bezala, ohikoagoa da kontzeptu abstraktuak hizpide edukitzea eta, gainera, *jarraitu* aditzari begira ez da hain ohikoa testu akademikoetan haren osagarria gizakia izatea eta, are gutxiago, aditz horrek mugimendua adieraztea, osagarria edota subjektuaren mugimendua, alegia (20). Jokabide hori ez dator bat *jarraituren* oinarritzko adierekin, hots, beste baten atzetik ibiltzearekin (18) eta egoera edo ekintza jakin batek bere horretan irautearekin (19). Hona hiru erabilera horiek:

(18) Ikasleek irakasleari jarraitzen zioten.

(19) Ikasleek ikasten jarraitu zuten, irakasleak alde egin zuen arren.

(20) Ikasleek irakasleak azaldutako prozedura jarraitu zuten esperimentuan.

Azken erabilera hori testu zientifiko-teknikoei dagokie, eta horrelakoetan absolutiboa agertzen da sarritan. Adibide horiek ikusita, Fernándezen eta Ortiz de Urbinaren (2010) [+/- gizaki] tasuna erabakigarria dela ematen du. Dena den, artikulua honetan beste bi tasun proposatuko ditut. Batetik, [+/- bizidun] egokiagoa da, neure ustez, *jarraitu* eta *segitu* aditzen analisirako, animaliek ere datibo-marka hartzen baitute. Bestetik, baderitzot osagarrian [+/- mugimendu] tasuna beharrezkoa dela, [+/- bizidun] tasunez gain, (18) eta (20) adibideetako osagarrien arteko aldea horixe baita⁵; bestela esanda, (18)-an subjektua eta osagarria mugitzen dira eta (20)-an ez dira ez subjektua, ez osagarria mugitzen, edo hainbat kasutan subjektua bai, baina objektua ez da mugitzen. Hala ere, aldakortasuna dago testu eta corpusetan, eta batzuetan datiboa ere erabiltzen da [- bizidun, - mugimendu]dun osagarrietan, Euskaltzaindiaren araua beteta. Dena den, ikusiko dugun moduan, corpusei xeheki begiratzuz gero, araua betetzen den horietan hizkuntzalarien edota hizkuntza-adituen interbentzioa egoten da.

Gauzak horrela, absolutiboaren erabilera testu akademikoetan ugaritzea aztertuko dut artikulua honetan. Horretarako, *segituren* balizko eraginari eta testu akademikoetako izen bizigabeen ugaritasunari begiratzeko diet, ulertzeko zerk eragingo zuen ugaritze hori. Hala ere, fenomeno horiek ikertzeraz igaro baino lehen, datuak biltzeko erabili ditudan corpusak aurkeztuko ditut.

5 Berrikusle batek [mugimenduzko gertaera] proposatzen du. Egia da *esperimentuan urratsak jarraitu* bezalako gertaeretan ez dagoela mugimendurik eta horietan nabarmen erabiltzen dela absolutiboa; hala ere, beste kasu batzuetan, *bidea jarraitu* bezalakoetan, esate baterako, mugimenduzko gertaera bada ere, objektuari ez dio mugimenduak eragiten. Beraz, egoera bietan errepikatzen den tasuna objektuaren mugitzeko gaitasunari dagokio eta, hori aintzat hartuta, osagarrien [mugimendu] proposatzea erabaki dut.

3. METODOLOGIA

Testu akademikoetan gehienbat ugaritu den *jarraitu* aditzaren erregimen absolutiboduna, eta datibo/absolutibo alternantzia aztertzea da lan honen helburua. Horretarako, hainbat corpus erabili ditut, hizkera akademikoaz gain, hizkera orokor idatzia eta ahozko hizkera kolokiala ere aintzat hartuta. Hona erabilitako corpusak:

- a. Euskal Klasikoen Corpora (aurrerantzean, *EKC*) (Euskara Institutua): XX. mendea bitarteko testu klasiko ia guztiak biltzen ditu.
- b. Corpus Historikoa (aurrerantzean, *CH*) (Euskara Institutua): 1545.-2000. urteen arteko corpora; 2.641 liburu eta aldizkari biltzen ditu.
- c. Ahotsak.eus corpora (Badihardugu Euskara Elkarteak): ahozko tradiziozko corpora da, 1900-1950 bitartean jaiotako euskaldunen bat-bateko elkarrizketen transkripzioek osatutakoa.
- d. Ereduzko Prosa Gaur corpora (aurrerantzean, *EPG*) (Euskara Institutua): 2000-2006 bitarteko 287 liburu biltzen ditu, baita 2001-2005 bitarteko *Herria* astekaria eta 2004-2006 bitarteko *Berria* egunkaria ere.
- e. Egungo Testuen Corpora (aurrerantzean, *ETC*) (Euskara Institutua): XXI. mendean argitaratutako testuak biltzen ditu (liburuak, prentsa idatzia, astekaria, telebista, besteak beste).
- f. Dabilena corpora (Elhuyar Fundazioa): Elhuyarren euskarazko web-corpora da. *Berria*, *Wikipedia*, *Klasikoak*, *Zientzia.eus*, *Susa*, *Argia*, *Consumer*, *Armiarma*, *Booktegi* eta *Zientzia eta Teknologia Hiztegia* webguneetatik elikatzen da.
- g. Zientzia eta Teknologiaren corpora (aurrerantzean, *ZTCorpora*) (UPV/EHU eta Elhuyar Fundazioa): zientzia eta teknologia alorreko euskarazko testu-bilduma da; aldizkariak edo liburuak izaten dira jasotako lanak.
- h. Garaterm corpora (UPV/EHU eta Elhuyar Fundazioa): unibertsitateko esparru akademikoan erabili eta sortzen diren testuak biltzen ditu (irakaskuntza-gidak, apunteak, aurkezpenak, ariketak, praktika-protokoloak, azterketak, besteak beste). Bi azpicorpus bereiz daitezke: kontrolatua (hizkuntza zuzendutakoa) eta espontanea (hizkuntza zuzendu gabekoa).
- i. HartaEus corpora (UPV/EHU eta Elhuyar Fundazioa): unibertsitateko gradu amaierako lanak eta master amaierako lanak biltzen ditu.

Corpusak aukeratzeko, lan honen helburuak izan ditut gogoan. Testu akademikoetan lekukotzen den erabilerari begiratu nahi zaionez, horrelako testuak biltzen dituzten corpusak arakatu ditut, Garaterm, HartaEus eta ZTCorpora hain zuzen. Bestalde, horiek hizkera orokorrarekin konparatzea ezinbestekoa da, testu akademikoen erabilera

bereizgarriak azaleratzeko; beraz, Ahotsak.eus corpora, EPG, ETC eta Dabilena corpora aztertu ditut. Hau da, egia bada testu akademikoetan *jarraitu* aditzak era bereizgarrian erabiltzen dela, espero dut hizkera orokorreko datuen aldean azalean geratzea testu akademikoetan gehiago baliatzen dela absolutiboa. Azkenik, helburu horrez gain, osagarri absolutibodunak erdaratiko *segituren* erregimenaren eraginagatik ugaritu diren aztertzeko da beste ikergaia. Horretarako, corpus historikoetara jo dut, erdaratiko *segitu* mailegatzeak eta zabaltzeak absolutiboa gehiago erabiltzea ekarri balu, garapena agerian geratuko zelakoan. Helburu horretarako, EKC eta CH arakatu ditut.

Corpusen emaitzak baliatu eta, finean, interpretatzeko bi modu erabili ditut. Corpusen arteko emaitzak konparatu ditudanean, bilaketetan azaldutako agerraldi-kopuruak normalizatu ditut agerraldi/miloi bateko (aurrerantzean *agerraldi/1M*) lortzeko, agerraldi/1M balioek ahalbidetzen baitute corpusen arteko konparaketa erreala izatea, corpusaren tamainak baldintzatu gabe. Beraz, lan honetan corpusen arteko alderaketa egin denean, agerraldi/1M balioak erabili dira, baita proportzioak kalkulatzeko ere. Bestalde, *jarraitu* aditzaren osagarriei erreparatu die-danean, corpusetan agertzen diren adibide guztiak banan-banan aztertu ditut, oro har. Hala ere, corpusen tamainagatik edota adibide-kopuruengatik hainbat kasutan ezin izan dut osorik eta banan-banan aztertu. Horrelako kasuetan, 200 adibideko lagina hartu eta ikertu dut, lagin horretatik ateratako emaitzak orokortu eta corpus osora estrapolatuta. Horrela jokatu dut Garaterm corpusaren kasuan, 20.480 adibide agertzen baitziren. Bestalde, Garaterm eta HartaEus corpusetan hipereremuen arabera aztertu dut *jarraituren* joera; lau dira hipereremu horiek: Arte eta Humanitateak, Gizarte-zientziak, Biologia eta Osasun-zientziak eta Zientzia fisikoak. Azkenik, corpus historikoetan autore jakin batzuetara mugatu naiz, hurrengo atalean azalduko dudana bezala.

4. JARRAITU ETA SEGITU ADITZEN ARTEKO HARREMANA

Esan bezala, *jarraitu* aditza edukiko dut hizpide artikulu honetan. Dena den, horren ondoan *segitu* aditza agertzen zaigu. Inguruko erdaretatik mailegatu zen aditz hori, gaztelaniaz nahiz gaskoiz *seguir/seguir* formak erabiltzen baitira hurrenez hurren⁶. Gaur egun *segitu* aditza *jarraitu*ekin batera aurki daiteke edozein testutan, biak erabiltzen baitira euskalki guztietan eta horrela islatzen baita idatzizko testuetan. Dena den, aditz biak ez dira maiztasun berean erabiltzen: *jarraitu* aditza gehiago baliatzen da idatzizkoetan; ahozko testu kolokialetan, ordea, *jarraitu* aditza askoz gutxiago erabiltzen da *segitu* baino, *jarraitu* aditzaren ahotsak.eus corpuseko agerraldi gehienak elkarrizketatzaileenak baitira⁷. Desoreka dago bi formen erabileren artean, idatzian *jarraituren* alde

6 Gaskoiz honako aldakiak agertzen dira Cénac-Moncaut-en eta *Lexilogos* hiztegietan: *seguir, sequir, séquer, sieguer, seguí*.

7 Elkarrizketatzaileek *jarraitu* aditza gehiago erabiltzea lotuta egon liteke egoera horretan hizkera jaso eta zaindua erabiltzeko ustezko behararekin. Halaber, elkarrizketatzaileek, euskaraz eskolatuak zirenez, *jarraitu* forma hobetsi ahaliko zuten. Edozelan ere, nabarmena da elkarrizketatuen eta elkarrizketatzaileen arteko aldea, lehenengoek *segituren* alde eta bigarrenek *jarraituren* alde.

eta ahozko kolokialean *segituren* alde, alegia. Horiek horrela, pentsatzekoa da egunerokotasunean baliatutako aditzak, hots, *segituk jarraituri* eragin ahalko ziola, *segituren* erabilera orokorragoa eta hedatuagoa dela kontuan hartuta.

Beraz, aditza mailegatu zen heinean, erregimena ere jatorrizko hizkuntzatik hartzea espero izatekoa litzateke. Hizkuntza horietan *a* preposizioa duen osagarri zuzena hartzen du aditzak. Espainiako Errege Akademiak (RAE) (2005) azaltzen du *a* preposizioaren erabilera nahitaezkoa dela aditz horren kasuan, predikatuaren osagaien arteko ordena edo hierarkia markatzen baitu. Dena den, ez da zeharkako osagarriarekin nahastu behar; izan ere, dagokion 3. pertsonako izenordain atonoa *lo* edo *los* da, osagarri zuzena edo akusatiboarena, hain zuzen. Beraz, euskarazko absolutiboaren ordaina erabiltzen da erdara horretan behintzat. Hala ere, hizkera estandar ez arautuan *a* preposizioa ez da bizigabeekin erabiltzen; are gehiago, gaztelaniaren corpus diakronikoaren (CORDE) datuen arabera, osagarri zuzena *az* markatzea ez bide zen nahitaezkoa ez bizigabeekin, ez bizidunekin:

- (21) Cuando dejaban de pelear con los nuestros pareció después que no fuera posible sojuzgarse si estuvieran tan conformes en *seguir un rey y caudillo* como se requería para defenderse de un príncipe tan poderoso [...] (CORDE)
- (22) Y siempre pasaban de Berbería muy preciados y señalados hombres de armas para *seguir la guerra* como en empresa y conquista santa [...] (CORDE)
- (23) [...] y que debía *seguir el más seguro camino* por no poner su ejército en peligro [...] (CORDE)
- (24) [...] por escritura se obligaron de servir y *seguir al papa* contra el rey don Hernando [...] (CORDE)

XVI. mendeko adibide horiek erakusten digute gaztelaniaz osagarriak akusatibo-marka hartzen zuela, baina hainbatetan (24) *a* preposizioa ere bai.

Erdarazko aditzak euskarazko *segitu* aditzaren erregimenean eraginik eduki ote zuen argitzeko, bost autore klasikoren corpora arakatu dut EKCn. Hauexek dira aztertutako autoreak: Duvoisin, Lizarraga, Kardaberaz, Uriarte eta Zerbitzari (Elizalde)⁸. Corpus-bilatzaile horretan *jarraitu* eta *segitu* aditzen erregimena aztertu dut; horretarako, Euskaltzaindiaren (2016) *egoera edo jarrera jakin batean iraun* esanahia albo batera utzi eta *nor* edo *nori* osagarria daukaten adibideei erreparatu diet. Hurrengo taulak biltzen du aditz bien kasuan erregimen bakoitzak zenbat agerraldi dituen.

⁸ Euskalki guztiak ez badaude ordezkaturak, ipar/hego eta mendebal/ekialde banaketa aintzat hartu da, banaketa horiek baitira esanguratsuenak, oro har. Gauzak horrela, iparraldekoak dira Duvoisin eta Zerbitzari, eta hegoaldekoak Kardaberaz, Lizarraga eta Uriarte. Bestalde, mendebalekoak dira Kardaberaz eta Uriarte, eta ekialdekoak Duvoisin, Lizarraga eta Zerbitzari.

1. taula. *Jarraitu* eta *segitu* aditzen erregimenaren araberako agerraldi kopurua bost idazle klasikorengan

	<i>Jarraitu</i> N-N-N	<i>Jarraitu</i> N-N	<i>Segitu</i> N-N-N	<i>Segitu</i> N-N
Uriarte	561	3	6	6
Lizarraga	0	0	39	124
Duvoisin	385 (zer-nori)	0	1	4
Kardaberaz	160	4	3	0
Zerbitzari	50 (zer-nori)	0	0	7


Segitu aditzaren datuei begiratuz gero, ikusten da bi erregimenen artean N-N gehiagotetan erabiltzen dela oro har, aditz horrek autore gehienengan oso agerraldi kopuru murrizta daukan arren⁹. Beraz, tentuz hartu behar da ondorio hori, autore batek bakarrik erabiltzen baitu erruz. Gainera, erregimenen arteko aldea nabarmena da idazle horrengan bakarrik, Lizarragarengan hain zuzen. Bestalde, mendeal zabaleko idazleengan ez da egoera hori igartzen; ekialdekoen artean, ordea, N-Nren aldeko joera dago, *segitu* aditza erabiltzen duten gutxietan (cf. Fernández & Ortiz de Urbina, 2010, 72. or.).

Gauzak horrela, balidurike erdararen erregimena ere mailegatu zela. Nahiz eta tradiziozko euskara idatziak hori irudikatzen duen, ahozko hizkuntza biltzen duen ahotsak.eus webgunearen corpusak bestelako irudia eskaintzen digu. Bertan ikus dezakegu *segitu* aditzak azken 100 urteetan N-N-N erregimena hartzen duela gehienetan, agerraldien % 86,79tan, hain zuzen. Gainera, osagarriei begiratuz gero, argi dago bizidun vs bizigabe bereizketak ez duela erregimenean banaketa argirik marrazten, datiboa hartzen duten osagarrien artean bai *astoa* edo *ni* bezalako bizidunak, bai herri-izenak, *musika* edo *haria* bezalakoak agertzen baitira. Beraz, datiboa hartzen duten osagarriak bizidunak eta bizigabeak izan daitezke. Hala ere, nabarmentzekoa da bizidunek datiboa besterik ez dutela hartzen, mugitzen diren bizidunek, alegia, direla animaliak, direla gizakiak; bizigabeek, berriz, absolutiboa zein datiboa aukeratzen dute. Antzeko banaketa topatzen dugu autore klasikoengan, *begirakortasun* edo *bidea* bezalako osagarri bizigabeek datiboa zein absolutiboa hartzen baitute eta bizidunek (*Jesus*, kasu baterako) gehienetan datiboa hartzen dute. Puntu horri helduko diogu aurrerago (§ 5).

Egoera bertsua ikus daiteke ahotsak.eus webgunearen corpusean *jarraitu* aditzari dagokionez. Bizidunek osagarri dituzten predikatuek N-N-N hobesten dute. Aitzitik, erregimenen arteko banaketa ez da *segitu* aditzaren kasuan bezain argia: agerraldien % 58k N-N-N erregimena daukate; % 42k, berriz, N-N. Aurrerago (§ 5) hurbiletik begiratuko diegu erregimen bakoitzean agertzen diren hainbat lemari.

9 Aditzaren erregimenaz berba egiten dudanean, N-N eta N-N-N bereizten ditut: lehenengoan osagarriak absolutiboa hartzen du; bigarrenean, ordea, datiboa hartzen du aditzaren osagarriak. Horrela bereizi dut kasu batzuetan aditzaren erregimenari begiratu diodalako, baina beste batzuetan, ordea, osagarriak hartzen duen kasuari. Gauzak horrela, N-N-Npean bildu eta aztertu ditudanak datiboz markatutakoak dira eta, beraz, *datibo* eta *N-N-N* izendapenak baliokideak dira, eta, bestetik, N-N multzoan jaso eta aztertutakoak absolutiboz markatutakoak dira eta, horrenbestez, *absolutibo* eta *N-N* baliokideak dira.

Bestalde, 1. taulari berriro erreparatuz gero, beste bi ondorio atera daitezke hortik. Batetik, *jarraitu* aditza erabiliz gero, N-N-N erregimena agertzen da % 99,40 bider. Egoera bestelakoa da Lizarragaren kasuan, *segitu* aditza erabat erabili zuelako eta, halaber, N-N erregimenaren aldeko hautu garbia egin zuelako gehienetan, % 76,07 bider, alegia. Bestetik, nabarmena da *jarraitu* formaren alde egin zutela autore gehienek, Lizarragak salbu, beste guztiek adien % 97,73tan erabili zuten *jarraitu* aditza *segitu* gabe. Lizarraga ere aintzat hartuta, banaketa hau da: *jarraituren* agerraldiak % 85,96 dira; *segiturenak*, ordea, % 14,04. Autore horiek ausaz aukeratu ziren eremu geografiko gehienak ordezkatura egoteko. Hala ere, banaketa hori ez da asko aldentzen corpusetan topatzen dugun egoeratik. Kontsultatutako corpusen emaitzak biltzen ditu 1. irudiak.



1. irudia. *Jarraitu* eta *segitu* aditzen arteko banaketa corpusetan.

Ikus daitekeenez, corpus gehienetan *jarraituk* dauka agerraldi-kopuru handiagoa. Salbuespena ahotsak.eus-ena, corpus horretan parekatuta baitago *jarraitu* eta *segitu* formen erabilera; % 47,52 eta % 52,48 banaketa daukate, hurrenez hurren. Desberdintasun hori interesgarria da, corpus hori ahozko hizkuntza jasotzen duen bakarra baita. Horrek iradokitzen du, ahozkoan ez bezala, idatzian *jarraituren* alde egin dela¹⁰. Gainera, esan liteke joera hori indartu dela gaur egun eta, are gehiago, hizkera akademikoan.

10 Testu idatzietan gaur egun ahozkoetan ohikoa den *segituren* ordez *jarraituren* alde egiten dela argitzeko, 20-25 urteko unibertsitateko ikasleei inkesta bat egin zitzaien hautu lexikoen eta gramatikalen gainean; 21 pertsonak erantzun zuten galdetegia, eta aho batez *jarraitu* forma hobetsi zuten. Bestalde, ahotsak.eus corpusari hurbiletik begiratuz gero, *jarraitu* lemaen barruko agerraldi-kopuru handia elkarriketatzaileak ekoitzia da. *Jarraituta* forma soilik aintzat hartuta, 25 agerralditik bakarra ekoitzi zuen elkarriketatutak. Baliteke alde horren atzean elkarriketatzaileak euskaraz eskolatuak izatea eta, beraz, testuinguru akademikorako hobetsi den forma euren ikerketan, hots, elkarriketan, ere baliatzea. Dena den, zuhurrak izan behar dugu, eta ikusi beharko litzateke zein testuingurutan erabiltzen duten elkarriketatuek eta elkarriketatzaileek, eta elkarriketatzaileak nongoak diren eta nongo hizkera erabiltzen duten.

CHn *jarraitu* eta *segitu* formen arteko banaketa ez dago lehenengo taulako autoreen artekoa bezain markatua, baina hor ere gehiago lekukotzen da *jarraitu* (% 69,71), *segitu* (% 30,29) baino. Antzeko egoera agertzen zaigu EPGn. ETCn banaketari eusten bazaio ere, ikusten da *jarraituren* presentzia areagotzen dela (% 77,30). Era berean, Dabilena web corpus, ZT eta Garaterm corpusetan *jarraituren* aldeko joera indartu besterik ez da egiten, Garatermen aditz horren presentzia % 96,91ra igotzen baita. Beraz, arestian esan bezala, nabarmena da *jarraitu* aditzaren testu idatzietako eta, batez ere, akademikoetako erabilera.

Ondorioz, atal honetan erakutsi dut erdaretatik mailegatutako *segitu* aditza bat datorrela hein handi batean *jarraituren* erregimenarekin. Bestela esanda, bai *segitutuk*, bai *jarraituk* hizkuntza idatzian erregimen biak dituzte. Are gehiago, ahozkoan, oro har, N-N-N da aditz bien kasuan aukerarik erabiliena; nabarmena da *segitu* aditzak erregimen bien artean duen aldea, egungo ahozkoan N-N-N erregimena gailentzen baita¹¹. Beraz, aintzat hartuta a) biek dutela datibo/absolutibo alternantzia bai egungo testuetan, bai testu zaharretan, b) aditz bien kasuetan N-N-N gailentzen dela ahozkoan, c) *jarraitu* aditzak N-N erabiliko zukeela *segitu* mailegatu aurretik, iraupenezko adiera markatzeko ez baitago beste aukerarik, eta d) *jarraitu* forma hobesten dela hizkuntza idatzian eta testu akademikoetan, ez dago ebidentzia nabarmenik ondorioztatzeko N-N erregimenaren hedapena *segituren* eraginaren ondorioa dela. Erregimenen arteko desberdintasunak osagarri-motarekin egon behar du lotuta, hurrengo ataletan argudiatuko dudana bezala. Bestalde, ikusi dugu *jarraitu* eta *segitu* aditzen arteko distantzia handiagoa dela idatzizko testuetan, ahozkoetan baino. Are gehiago, ematen du hizkera akademikoan *jarraitu* formaren aldeko hautu irmoa egin dela, Garatermen datuek agerian uzten duten bezala. Hurrengo ataletan hizkera horretako testuei begiratuko diet, aditz horren erabilerak argitzeko.

5. JARRAITU ADITZAREN ERABILERAK

Orain arte (§ 2), *jarraituren* bi adiera prototipikoak aipatu ditugu. Aldiz, bost esanahi biltzen ditu Euskaltzaindiak (2016) eta beste baten kontra arautzen du (Euskaltzaindia, 2018, 287.-288. or.)¹². Hona erabilera horiek:

- a. Norbaiten edo zerbaiten ondotik joan edo ibili.
- b. Atzetik joan, aurrekoarekin biltzeko, hura atzemateko.

11 Berrikusle batek ohartarazten didan bezala, ematen du historikoki kontrako joerak eduki dituztela bi predikatuek: *segitutuk* N-N-Nrantz egin du eta *jarraituren* kasuan, ordea, N-Nrantz.

12 EEH (<https://www.ehu.eus/eeh/>) eta Elhuyar (<https://hiztegiak.elhuyar.eus/>) hiztegi ez-arauemaileek ez dute aparteko erabilerarik aipatzen.

- c. Norbait edo zerbait gidaritzat, arautzat hartu, norbaiten iritziak edo erakutsiak onartu.
- d. Beste zerbaiten ondotik etorri edo gertatu.
- e. Egoera edo jarrera jakin batean iraun.
- f. Denboran zehar ekintza bati ekitea horri utzi gabe. (kalkoa)


Azken horretaz diosku Euskaltzaindiak kalkoa dela, komitatiboa erabiltzen den erdarazko egituraren kalkoa hain zuzen ere. Esate baterako:

(25) Ariketarekin jarraituko dugu.

Lehenengo lau esanahiak orokortu eta batean laburbil daitezke: norbait edo zerbait gidaritzat hartuta, bere atzetik joan, markatutako bidea (dela fisikoa, dela metaforikoa) onartu. Adiera fisikoa argia da: A puntutik B puntura joatea gidatzen gaituen Xren atzetik. Aldiz, adiera metaforikoa honi deritzot: arestian esan bezala, Lakoffek (1993, 203.-204. or.) dio mundu fisiko eta zehatzetik mundu abstraktura pasatzean metaforak agertuko direla, mundu fisiko horretatik inferentziak eginez mundu abstraktuan paralelismo bat osatuko baitugu; gauzak horrela, kasu batzuetan mugimendu fisikoa eta erreala da, baina beste batzuetan osagarria, behintzat, ez da mugitzen, nahiz eta ulertzen den subjektua osagarriak irudikatzen duen objektuari (esaterako, mendi bat, kanta baten letra edo argibide batzuen urratsak) segika egongo balitz bezala.

Horrez gain, (a-b) eta (c-d) aukeren arteko aldea osagarriaren mugimenduaren kontzeptuan datza. Aurrerago argudiatuko dut kontzeptu hori erabakigarria dela datibo/absolutibo alternantzian, [+ mugimendu] tasuna subjektuan ez ezik, osagarrian ere egoteak osagarria datiboz markatzea baitakar eta [- mugimendu] tasuna osagarrian, behintzat, agertzeak absolutibo markaren alde egiten baitu. Gauzak horrela, hiru erabilera genituzke: orain aipatutako mugimendu (fisiko nahiz metaforiko)ko adiera (a-d), inesiboaz markatzen den iraupenezko adiera (e) eta delako kalkoa (f). Hiru erabilera horiek biltzen ditu Euskaltzaindiak, tradizio luzekoak ala kalkotzat jo, eta hiru erabilerak lekukotzen dira arakatutako ZTCorpusean. Hurrengo taulan eta irudian islatutako kopuruak eskuz lortu dira, hau da, ZTCorpusak ematen dituen adibide guztiak banan-banan aztertu, hiru multzo horietan sailkatu eta zenbatu dira.

ZTCorpusean agertzen diren *jarraitu* agerraldi bakoitza aztertuta, ikusten da mugimendu (fisiko nahiz metaforiko)ko esanahia (norbait edo zerbait gidaritzat hartuta, bere atzetik joan) adierazteko baliatzen dutela hiztunek *jarraitu* aditza gehienbat, *segitu* aditzarekin erkatuta. Aldea, termino absolutuei ez ezik, proportzioei ere begira nabarmena da, *jarraituren* agerraldien % 69,59koa baita eta *segituren* kasuan, ordea, agerraldien % 36,24koa. Interesgarriro, corpus berean *segitu* aditzak dituen erabilerei begiratuz gero, mugimenduko esanahia (a-d) ez da gehien erabilia, iraupeneko esanahia (e) baizik. Izan ere, proportzioak aintzat hartuta, *jarraitu* eta *segitu* aditzen artean



2. irudia. ZTCorpuseko *jarraitu* eta *segitu* aditzen hiru erabileren banaketa.

igartzen da aldea, lehenengoaren agerraldien % 21,51k adierazten baitute iraupena, eta *segituren* kasuan, berriz, % 54,34k. Baliteke, beraz, testu akademikoetan espezializazioz egitea *jarraitu* eta *segitu* aditzek: *jarraituk* mugimenduko adieraren alde eta *segituk* iraupeneko adieraren alde.

Gure aztergaiko galderara berriro bueltatuz gero, N-N-N eta N-N alternantzia mugimenduko esanahian bakarrik lekukotzen da. Hori espero izatekoa zen, historikoki esanahi horri soilik eragin baitio aditzen erregimen-aldaketak. Iraupeneko esanahiaren erregimena, ordea, ez da aldatu, historikoki N-N aukeratu delako erabilera horretan¹³. Errepara diezaiogun aditz horiek mugimenduko esanahian duten erregimenari. Lehen esan bezala, osagarria biziduna izanez gero, datiboa erabiltzen da; ahotsak.eus corpusean guztiz betetzen da jokabide hori, ez baitago bizidunik absolutiboaren bidez¹⁴.

13 Hala ere, batzuetan iraupeneko esanahiari dagozkion forma nominaletan datiboa erabili da (Fernández & Ortiz de Urbina, 2010, 166. or.), esate baterako: *lanari jarraitu dio*. Hiperzuzenketa baten aurrean egon gintezke, *lanarekin jarraitu du* erabileraren kontrako norabidean. Dena dela, testu klasikoetan ere lekukotzen dira horrelakoak; horra Uriarteren adibide bat:
(i) Bitartean Pedrok atea jotzeari jarraitzen zion. (Uriarte, 1858-1859, EKC)
Fernándezek eta Ortiz de Urbinak (2010, 28. or.) erakusten dute inesibo/datibo alternantzia beste aditz batzuetan ere lekukotzen dela, eta proposatzen dute ekintza/aspektu dikotomiarekin dagoela lotuta.

14 Lan dialektologikoei (Epelde, 2003; Sagarzazu, 2005) begiratu azkar bat eginez gero, ikusten da absolutiboa ere erabiltzen dela gizakiekin. Hala ere, bi jokabide bereizten dira horrelako adibideetan: batetik, adibide batzuk Datiboaren Lekualdatzearen eremu geografikokoak dira (Duhalde, 2023) eta, beraz, fenomeno horrek eragindakoak izan litezke; bestetik, beste erabileran lehenengo eta bigarren pertsonekin erabiltzen da absolutiboa, eta hirugarren pertsonekin datiboa eta; beraz, Osagarriaren Markapen Bereizgarria (Odria, 2017) delakoaren kontrako fenomenoak eragingo luke erabilera hori.

Aldiz, osagarria bizigabea den testuinguruetan egoera ez da hain garbia; kasu gehienetan absolutiboa erabiltzen da, baina hainbat kasutan datiboa ere azaltzen da. Banaketa bera dauka *segitu* aditzak. Gauzak horrela, interes handikoa litzateke aztertzea ahotsak.eus corpuseko osagarri bizigabeen alternantzia horren atzean zer dagoen. Hori argitzeko, osagarriak diren hitzei erreparatuko diegu orain. Hona ahotsak.eus corpusean aditz bakoitzeko erregimen bakoitzean agertutako lema bizigabeak:

- a. *jarraitu* → datiboa: mendi-izena (x 2), *kaminoa*, *herria*, *perretxikoa*, *konseju*, *haria*, *ohitura* (x 2), *lana*, *makina*, *baserria*, *bertsolaritza*, *ofizioa*.
- b. *jarraitu* → absolutiboa: *bidea* (x 10), *kaminoa*, *kanala*, *pista* (x 3), *ildo*, *liburu*, *moda*, *aktualitatea*, *notizia*.
- c. *segitu* → datiboa: *eskuara*, *txondorra*, *apellidua*, *guda*, *meza*, *trenbidea*, *pista*, *haria* (x 2), *mogimendua*, herri-izena (x 2), mendi-izena, *kurutzea*, *musika*.
- d. *segitu* → absolutiboa: *kaminua*, *bidea*, *mugimendua*, *erakutsitakoa*, *martxa* (= *ohitura*), *ziklismoa*.

Joera batzuk nabaritzen dira banaketa horretan. Lehenengoz, *bidea/kamino* itemak absolutiboa hobesten du; hori tradizioaren kontra doa, *bideari jarraitu* erruz agertzen baita autore klasikoengan. Multzo berean sar genitzake *kanala* eta (mendi) *pista*. Bigarrenez, *haria* itema daukagu; kasu horretan datiboa hobesten da, bai *jarraitu*ekin, bai *segitu*ekin batera erabiliz gero. *Haria* hitzak datiboa aukeratzeko arrazoia baliteke testuinguruari lotuago egotea hitzaren ezaugarri lexikalei baino. Hau da, corpusetan arakatuz gero, ikusten dugu *haria* eta *ildo* hitzek datiboa aukeratzen dutela gehienetan. Beraz, badirudi konbinazio hori lexikalizatuta dagoela. Hirugarrenez, tradizioari erabilerari jarraitzen diote beste batzuek: *konseju*, *meza* edo *musika* itemek, alegia; kasu honetan jatorrizko erabileraren metaforizazioaren ondorioa izan liteke horrelako hitz abstraktueta zabaltzea: Xren atzetik ibiltzeak Atik Bra(ntz) joatea dakar, hots, Y Xren atzetik badabil, Yren kokapenetik Xren helmugara(ntz) joango da, A abiapuntutik B helmugara(nz)ko bidea eta beharrezko urratsak eginez. Beraz, oraingo kasuetan mezaren hasieratik (A abiapuntutik) amaieraraino (B helmugarantz) entzutea edota onartzea adieraziko luke, eta aholku eta musikaren kasuan beste horrenbeste. Mendi edo toponimo esanguratsuen kasuan antzeko egoera irudika daiteke: mendi bat gidaria izan daiteke toki batetik beste batera(ntz) joan nahi dugunean eta, beraz, bere atzetik ibiliko balitz bezala joango da subjektua. Inferentzia legoke, beraz, horrelako kasuetan, Lakoffek (1993) iradoki bezala. Laugarrenez, ‘zeren segida hartu’ balioki-deak dira *lana*, *ofizioa*, *apellidua*, *eskuara*, *guda*, *baserria*, *ohitura* eta *bertsolaritza* itemak osagarri dituzten *jarraitu* eta *segitu* aditzak; adiera horrek Fernándezek eta Ortiz de Urbinak (2010, 73. or.) identifikatu zuten «seguir una línea de conducta, una costumbre, un precepto, un ejemplo, etc.» gogorarazten du. Bosgarrenez, badirudi metaforizazio horrek aurrera egin eta beste eremu batzuetara zabaltzea dela. Bigarren metaforak ‘moda jarraitu’ bezalakoak ekarri ditu; horrelakoetan ulertzen da, oraingo kasuan, modak urratsak edo etapak dituela eta lehenengotik azkenengora atzetik ibiltzen dela, denak onartuta. Era berean, sare sozialetan *jarraitzen zaitut* bezalako

esapideetan ez da fisikoki mundu errealean atzetik ibiltzea, metafora bat baizik, bere ideia edo bizipenen berri jasotzeko *atzetik* ibiltzea alegia. Azkenik, testuinguru jakin batean datibo-kasuaren erabilera gailentzen da, kontrako adibiderik ez baita corpuse-tan lekukotzen. Testuingurua hauxe da:

(26) [...] ta ni mutil-koxkorra *aittai segika* ta anaiai segika [...] (Urnieta, ahotsak.eus)

(27) - bai, antxua, zean, *izurdiai segika* jun, ta izurdia gelditzen zanian [...] (Zarautz, ahotsak.eus)

Beraz, *jarraika* edo *segika* erabiliz gero, euren osagarria datiboaz markatuta egongo da. Egia da ahotsak.eus corpuseko adibide horietan datiboa hartzen duten osagarriak bizidunak direla, baina baliteke absolutiboz ez markatzeko arrazoia [+/- bizidun] tasunarekin lotuta ez egotea. Izan ere, jokabide hori zentzuzkoa da, perpaus berean bi osagai absolutiboz markatzea, agramatikala ez bada, anbigua izango litzatekeelako¹⁵. Esate baterako:

(28) Oilo bat eta ume bat ikusi nituen kanpoan; oiloa jarraika zihoan.
(irakurketa bilatua: oiloak umeari edo beste norbaiti/zerbaiti jarraitzen zion)
(irakurketa bilatua: ?umeak oiloari jarraitzen zion)

Gainera, beste corpus zabalago batean, Dabilena corpusean hain zuzen, bilatuz gero, bizigabedun adibideak agertzen dira; esaterako:

(28) [...] Rabobank taldeak jarritako *erritmoari segika* [...] (Berria¹⁶, Dabilena)

(29) Baina kopla labur batzuen arrastoari segika [...] (Argia¹⁷, Dabilena)

Laburbilduz, atal honen hasieran Euskaltzaindiak (2016) identifikatzen dituen erabilerak edo esanahiak hirutara mugatu ditut; hala ere, osagarriaren [+/- mugimendu] tasunaren garrantzia azpimarratu dut mugimenduzko adierari dagokionez, hori izan baitaiteke absolutibo/datibo alternantzia azaltzeko gakoa. Mugimenduzko adiera horretan absolutiboz eta datiboz markatutako izenak aztertuta, ñabardura bat gehituko diot mugimenduzko esanahi horri, erregimen-aldaketa argituko duelakoan. Horiek horrela, erabilera edo esanahia hauek bereizten ditut:

a1. Atik Bra(nty) joateko mugimendu fisikoa abiatzea Xren atzetik.

15 Berrikusle batek aditzera ematen du agian [*segika* + mugimenduzko aditz] egiturak beste predikatu bat osatzen duela eta, horrelako kasuetan, predikatu horrek datiboaren alde lerrotatzen duela beti.

16 http://paperekoa.berria.info/kirola/2007-07-19/024/001/vasseurren_matrikula.htm


17 <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2599/tretatxu-lapurren-gobernadorea>

- a2. Atik Bra(ntz) joateko alegiazko mugimendua edo mugimendu metaforikoa abiatzea Xren atzetik edo X gidari hartuta eta abiapuntutik helmugara heltzeko behar diren urratsak eginda.
- b. Egoera edo jarrera jakin batean iraun.
- c. Denboran zehar ekintza bati ekitea horri utzi gabe. (kalkoa)

Erabilerak jorratuta, artikuluko honen aztergaiari helduko diot berriro, testu akademi-koetan baliatzen den *jarraitu* eta *segitu* aditzen erregimenari alegia.


6. JARRAITU ADITZAREN ERREGIMENA TESTU AKADEMIKOETAN

Aurreko atalean ikusi dugu *jarraitu* (eta hedaduraz *segitu*) aditzak hiru adiera dituela, baina mugimenduzkoan bakarrik aldakortasuna agertzen zaigula erregimen-hautuari dagokionez. Lehen esan bezala, erregimen horien banaketari erreparatuz gero, galdera bi datozkigu burura: batetik, zer dela eta erabiltzen diren datiboa eta absolutiboa, biak, bizigabeak markatzearen kasuan eta, bestetik, ea [bizidun] tasunak bakarrik eragiten duen alternantzia ala [mugimendu] tasunak ere garrantzia duen horretan. Hona aho-tsak.eus corpusaren datuak:



3. irudia. *Jarraitu* eta *segitu* predikatuen osagarriaren kasu-markaketaren banaketa [bizidun] eta [mugimendu] tasunen arabera (ahotsak.eus corpora).


Ikus daitekeenez, [+/- bizidun] nahiz [+/- mugimendu] tasunek ez digute argitzen zerk eragiten duen absolutiboa hautatzeko. Dena den, aldagai biei aldi berean erreparatuz gero, [-bizidun] eta [- mugimendu] tasunen konbinazioa adierazgarria da, konbinazio horretako % 60k absolutiboa hautatzen baitute.



4. irudia. *Jarraitu* eta *segitu* predikatuen osagarriaren kasu-markaketaren banaketa [bizidun] eta [mugimendu] tasunak konbinatuta (ahotsak.eus corpora).

Dena den, datiboz markatutakoak % 40 dira. Horiei begira, multzo bi bereiz ditzakegu: bateko, bizigabeak diren eta mugimendua eduki ezin duten arren, mugimenduko gertaera baten barruan kokatzen diren leku-izenak eta *bidea*, *haria* eta *ohitura* bezalako osagarriak, historikoki datiboa hartu dutenak, alegia; eta, besteko, izen bizigabeak izan arren, mugimendua eduki dezaketen *erromeria*, *gurutzea* eta *musika* bezalakoak. Azken horiek osagarriaren [- bizidun, + mugimendua] motakoak dira, eta interesgarriak dira, agerian uzten baitute, [+ bizidun] tasuna ez dela erabakigarria datiboa esleitzeko. Mugimendua, ordea, bada, mugimenduzko guztiek datiboa hartzen dutelako.

ZTCorpusen datuek, ordea, iradokitzen dute [- bizidun] [- mugimendu] osagarriek datiboaren bidez gehiago markatzen direla testu akademikoetan, aldea oso nabarmena ez bada ere:



5. irudia. *Jarraitu* eta *segitu* aditzen kasuaren arabeko banaketa ZTCorpusean.

Aitzitik, ZTCorpusean gehien lekukotzen diren osagarri-funtzioan agertzen diren le-mak Garaterm corpusean bilatuz gero, datu argiagoak lor daitezke erabilera eta joerei dagokienez. Dena den, Garatermen datuak ez dira lehenengo begiradan aurreko corpu-senetatik asko urruntzen¹⁸. Hala ere, corpus horretatik hartutako laginetan [+ bizidun] [+ mugimendu] osagarri bat besterik ez dut aurkitu; beraz, 6. irudian bildutako lemek [- bizidun] tasuna zeukaten.


2. taula. *Jarraitu* eta *segitu* aditzen kasuaren arabeko banaketa Garaterm corpusean

	Osagarria = datiboa	Osagarria = absolutiboa
[- bizidun, - mugimendu]	% 63,83	% 36,17
[+ bizidun, + mugimendu]	% 100	% 0

Berriro ere erregimenen arteko banaketa ez da argia. Hala ere, Garatermek corpus espontaneo (hots, hizkuntza berrikusi gabe dauden testuak biltzen dituen) eta kon-trolatua (hots, hizkuntza berrikusita zuzendutako testuak biltzen dituen azpicorpusa) bereizteko aukera eskaintzen du. Bereiziz gero, datu interesgarriagoak lortzen dira. Ja-rraian, ZTCorpusean agerraldi gehien dituzten 13 lema Garatermen bilatu eta espon-taneo vs kontrolatua irizpidearen arabera sailkatuko ditut¹⁹:

18 Garaterm corpusak 20.480 agerraldi dakartza; beraz, 20.480 adibide daude. Corpusaren tamaina dela eta, ezin izan dut osorik eta banan-banan aztertu. Horregatik, 200 adibideko lagina hartu eta ikertu dut, lagin horretatik ateratako emaitzak orokortu eta corpus osoari estrapolatuta.

19 *Segitu* aditzak agerraldi gutxi dituenez, oraingo analisitik baztertzea erabaki dut, emaitzak ez baitira batere adierazgarriak.




6. irudia. *Jarraitu* aditzaren kasuaren arabeko banaketa, Garaterm corpus espontaneoan eta kontrolatuan hartzen duen osagarri motaren arabera.

Predikatu bakoitzak corpus espontaneoan eta kontrolatuan duen datibo/absolutibo banaketa konparatuz gero, nabarmena da N-N-Nren alde egiten dela kontrolatuan 16tik 14tan, agian Euskaltzaindiaren araua betetzeko. Arauaren aldeko interbentzioak

interbentzio, corpus kontrolatuan erregimen bien arteko banaketa berdintsua izaten da, ZTCorpusean agerian geratu den bezala. Azken corpus horretan ez dago zuzenduak eta zuzendu gabeak bereizteko modurik; dena den, corpusaren natura bera aintzat hartuta, pentsa liteke zuzendua dela eta, beraz, *jarraitu/segitu* aditzen osagarria datiboaren bidez markatzea hobetsi dela.

Horrez gain, datuek erakusten dute N-N erregimena askoz ohikoagoa dela corpus espontaneoan edo, bestela esanda, zuzendugabeen. Egia da corpus kontrolatuan orekatuagoa dela bi erregimen arteko banaketa oro har eta 13 predikatuetatik 6tan bakarrik erabiltzen dela datiboa gehiago eta aldea ez da oso handia, % 50-60 ingurukoa baita. Bestalde, corpus kontrolatua eta espontaneoak erkatuz gero, ikusten da aztertutako 13 predikatuetarik 11 kasutan gehiago erabiltzen dela datiboa kontrolatuan, espontaneoan baino. Jokabide hori ez dator bat tradizioarekin, ezta ahotsak.eus-en ikusitako joera orokorrarekin ere. EKCn, ahotsak.eus corpusean, Garaterm corpus espontaneoan eta kontrolatuan lekukotzen den *item* bat aukeratu (*bide*) eta euren artean konparatuz gero, erraz igartzen da absolutiboaren aldeko joera²⁰.



7. irudia. *Bide* osagarriaren kasuaren arabeko banaketa hainbat corpusetan.

7. irudian ikus daitekeenez, tradiziozko testuetan datiboa hobesten zen *bide* hitza osagarria zen kasuetan; aldiz, ahotsak.eus eta Garatermen corpus espontaneoan absolutiboa gailentzen da. Ahotsak.eus-en kasuan, gainera, argi dago absolutiboaren aldeko hautua, corpus horren joera orokorraren kontra; *item* lexikoaren tasunek


20 Egia da *bide* hitzak erreferentzia bat baino gehiago eduki dezakeela. Ahotsak.eus-en adiera fisikoari egiten dio erreferentzia; Garatermen, berriz, metaforikoari. Hala ere, tradiziozko lanetan biak erabiltzen dira; are gehiago, metaforikoa ohikoagoa izan liteke, *Jaungoikoaren bideari* sarritan aipatzen baita.

eragin lezakete alde hori, hots, [- mugimendu] tasunak. Azkenik, nabaria da Garatermen corpus kontrolatuan arestian identifikatutako N-N-Nren aldeko indarra egiten dela.

Azkenik, Garaterm eta HartaEus corpusen kolokazioen emaitzek ere berresten dute joera hori. Hona Garatermen corpusaren kolokazioen datuak:


3. taula. Jarraituren kolokazioen agerraldi-kopuruak Garatermen corpusean, datibo/absolutibo banaketaren arabera

Osagarria = datiboa		Osagarria = absolutiboa	
130 agerraldi	% 13,54	830 agerraldi	% 86,46



8. irudia. Jarraituren kolokazioak Garatermen corpusean datibo/absolutibo banaketaren araberako proportzioan.

Kasu honetan gehienetan argia da banaketa eta, izen abstraktuak eta mugiezinak direnez, N-N erregimenaren aldeko hautua ere nabaria da, espero bezala. Salbuespena *ildo* da; aurretik (§ 6) erakutsi bezala, ahotsak.eus corpusean agerikoa da *haria* eta *ildo* izenen datiboaren aldeko hautu sendoa. Beraz, bat datoz corpus biak. Bestalde, gogoan eduki behar dugu kolokazioen kasuan ez dela espontaneo vs zuzendua bereizten. Dena den, kolokazio horietako batzuei erreparatu zaie 6. irudian bereizketa horren arabera, eta erakutsi dut zuzendugabea N-N erregimena hobesten dela. Hala ere, hainbat kolokaziok ez dute hain banaketa argirik: *printzipio* eta *ideia* osagarrien kasuan bezala. Alabaina, horiei hurbiletik begiratuz gero, argi dago norabide berean jotzen dutela, hots, absolutiboa gailentzen da corpus espontaneoan:



9. irudia. Jarraituren zalantzazko kolokazioen banaketa Garatermen corpus espontaneo eta kontrolatuan.

HartaEus corpusak ez du zalantzarik uzten absolutiboaren aldeko joeraz. Hona corpus horrek identifikatutako kolokazioak:

4. taula. Jarraituren kolokazioak HartaEus corpusean

Itema	Kasua	Itema	Kasua
prozedura	ABS	egitura	ABS
pauso	ABS	eskema	ABS
irizpide	ABS	metodo	ABS
prozesu	ABS	joera	ABS
bide	ABS	protokolo	ABS
eredu	ABS		

Ikus daitekeenez, bat ere ez dago datiboaz markatuta. Esan behar da corpus hori datu espontaneoek besterik ez dutela osatzen. Beraz, corpus horretan ere lekukotzen da aurretik identifikatutako joera.

Gauzak horrela, nabarmena da, Euskaltzaindiak (2016) bultzatu nahi duen ereduaren kontra, jarraitu predikatuak tradizioko testuetatik egungo testu akademiko nahiz orokorretara N-N erregimena aukeratzen duela N-N-N erregimenarekin batera. Hala-ber, ikusi dugu testu akademiko eta espezializatuetan absolutiboaren erabilera askoz handiagoa dela datiboarena baino. Alde hori ez da harritzekoa, gogoan baldin badugu

testu akademiko eta espezializatuen ezaugarri batek, hots, izen abstraktuen ugaritasunak testu akademiko eta espezializatuak orokorretatik bereizten dituela, eta aintzat hartzen badugu litekeena dela hiltunek erregimen biei ñabardura desberdinak esleitzea. Atal honetan aipatutako corpusak arakatuta, ikusi dugu, osagarria datiboaren bitartez markatzen denean, mugimendu fisikoa dagoela ekintzaren subjektu nahiz osagarrian eta, gainera, gehienetan subjektu eta osagarri horiek bizidunak izaten direla. Aldiz, ikusi dugu, osagarriak absolutibo kasua hartzen duenean, egoera korapilatsuagoa dela; hala ere, patroi bat identifika daiteke: osagarriak izen abstraktu edo bizigabeak izaten dira, eta gehienetan entitate fisikoak ez diren A puntutik Bra(nts) joatea adierazten da, mugimendu metaforikoa, alegia (*ideiak/larauak/prozedura jarraitu*). Alabaina, *bidea jarraitu* bezalako predikatuetan mugimendu fisikoa ere egon daiteke, nahiz eta horrelako kasuetan ekintzaren subjektua bakarrik mugitzen den. Horregatik hautatzen dute izen abstraktuek azken jokabide hori, hots, *arauak* edo *prozedura jarraitu* horien A puntutik B puntura joan eta, eredu edo gidaritzat hartuta, beharrezko urratsak egiteko ideia dakarrelako. Hain zuzen, horrexegatik erabiltzen da gehien N-N erregimena testu akademiko eta espezializatueta, horietan izen abstraktuak gailentzen direlako. Gainera, berriro mahaigaineratzen badugu Temmermanek (2000 apud Zabala eta beste, 2014, 154. or.) esandakoa, hau da, sintaxia bortxatzen den kasuetan arrazoinamendu metaforikoa dagoela eta horrek dakarrela jadanik hizkuntzan dauden antzeko formetara erabilera berria zabaltzea, N-N erregimenaren testu akademikoetako zabalkundeak ez luke inor harritu beharko. Izan ere, Euskaltzaindiak (2016) bereizten dituen esanahien artean bat azpimarratu dugu, mugimendu metaforikoa adierazten baitu; esanahi horren eta, beraz, mugimendu metaforiko horren adibidea *meza jarraitu* predikatua da, mezan hasieratik amaieraraino entzutea dakarrela irudikatzen baitu, mezaren hasierarik amaierarantz joango bagina bezala. Horiek horrela, hizkera orokorrean jadanik zegoen erabilera hori ustiatu dute testu akademiko eta espezializatuak, testu horietako testuinguruetan mugimendu metaforikoa zeharo agertzen baita. Beraz, mugimendu metaforikoa adierazteko beharrak indartuko zuen testu akademikoetan absolutiboaren erabilera; datiboaren erabilera, ordea, hizkuntza-adituen interbentzioa dagoen kasuetara mugatuta legoke, baita, jakina, mugimendu fisikoa adierazten duten eta kasu hori beharrezko luketen kasuetara ere.

Azken batean, berkonfigurazio hori euskara gizarte modernoaren esparruetara zabaltzeak ekar zezakeen. *Jarraituren* absolutibo/datibo alternantzia euskarak erregistro akademiko eta espezializatuak garatu baino lehenagokoa den arren, testu akademikoak bultzatzaile nagusiak izan zirela pentsa liteke, horietan ohikoa baita *jarraitu* aditza (a2) adiera metaforiko edo abstraktuan. Etorkizuneko lanerako geratzen da, beraz, egungo testu orokor eta akademikoak erkatzeko lana.

7. ONDORIOAK

Artikulu honetan *jarraitu* (eta, neurri batean, *segitu*) aditzei erreparatu diet, euren erabilerari eta erregimenari, hain zuzen. Historikoki *jarraitu* aditza dagoeneko aldatu zen absolutibo/datibo erregimen batetik ergatibo/datibo/(absolutibo) erregimen batera. Subjektua absolutibotik ergatibora igaro arren, aditzaren osagarria datiboaren bitartez

markatzen jarraitu zen. Gaur egun, ordea, egoera bestelakoa da, osagarria absolutiboz ere markatzea ohikoa baita, hizkera orokorreko ahotsak.eus corpusaren datuek agerian uzten duten bezala (% 48,21). Kasu horren erabilera askoz handiagoa da, testu akademikoei begiratzen badiegu (% 86,46, Garaterm corpusaren kolokazioak). Dena den, absolutibo eta datiboen arteko proportzioak aldatzen dira Garatermen corpus espontaneo eta kontrolatuei erreparatuz gero. Corpus espontaneoetan, hots, egileek idatzi bezala agertzen diren testuen corpusetan, absolutiboaren aldeko joera agerikoa da; *prozesu* edo *urrats* izen abstraktuen kasuan absolutiboa agerraldien % 91,35 eta % 91,74n erabiltzen da. Corpus kontrolatuetan, ordea, hizkuntza-adituen esku-hartzea nabaria da, Euskaltzaindiaren (2016) araua bete eta, horrenbestez, datiboaren erabileraren kopurua handitzen baita; berriro ere, *prozesu* edo *urrats* izen abstraktuei begiratuz gero, ikusten da datiboa agerraldien % 37,29 eta % 29,73n erabiltzen dela. Gauzak horrela, ez dago zalantzarik corpus kontrolatuan datiboaren alde egiten dela, nahiz eta horrek ez duen eragiten joera orokorra aldatzea, *prozesu* izenaren kasuan % 28,64 igotzen baita datiboaren erabilera corpus kontrolatuan eta *urrats* izenaren kasuan % 21,47, hain zuzen. Beste kasu batzuetan aldea are nabarmenagoa da, 6. irudian ikus daitekeen bezala, *eredu* izenaren kasuan % 53,38 igotzen baita datiboaren erabilera corpus kontrolatuan, eta beste horrenbeste gertatzen da grafiko horretako izen gehienetan. Erakunde arauemailetatik datorren eta testu akademikoetan ohikoa den zuzenketa, beraz, ez letorke bat adituen erabilerarekin.

Hasieran esan bezala erabilera horren zergatia aztertzea izan da artikulu honen helburua eta argitzea testu akademiko eta espezializatuetan ugaritzen den absolutiboaren erabilera hizkuntzen ohiko garapena ote den gramatikaren ikuspuntutik edota, ondorioz, hizkuntza-adituen interbentzioa beharrezkoa ote den. Zergatia argitzeko, bi hipotesi aztertu ditut: bateko, erdaratik mailegatutako *segitu* aditzaren erregimena ere mailegatu eta erregimen hori *jarraitu* aditzari zabaltzearen ondorioz gertatuko zen aldaketa, ahozko hizkuntza orokorrean *segitu jarraitu* bezain ohikoa dela aintzat hartuta; besteko, hizkera akademikoan *jarraitu*ren osagarrien izaerak, hots, izen abstraktu eta bizigabeen erabilera zabalak indartuko zuen absolutiboaren aldeko joera.

Lehenengo hipotesia berresteko edo baztertzeko argudio sendorik ez dago arakaturako corpusetan. Erdararen eragina guztiz baztertu ezin bada ere, hemengo datuek ez dute iradokitzen erdaratik *segituren* erregimenak *jarraiturena* aldatuko zuenik, *segitu* aditza Lazarragaren testuetatik aurrera agertzen baita eta, hala ere, XVIII-XIX. mendeetako idazleengan ez baita gaur egun topatzen dugun jokabidea islatzen. Izan ere, aztertutako autore klasiko horiek datiboa erabiltzea hobetsi zuten oro har, horren aldeko apustu argirik ez badago ere. Aldiz, ahotsak.eus corpusaren azterketak agerian uzten du *segitu* aditzaren erregimenari dagokionez N-N-N gailentzen dela. Beraz, *segitu* mailegatzeak ez zuen hasiera batean N-N-N erregimenaren N-Nrako aldaketa eragingo. Hala ere, egun hizkera akademiko idatzian *jarraitu* aditzean ikusten den N-N erregimenaren barne-aldaketa indartzen ahal dute inguruko erdarek, Alberdik (2010, 28. or.) *behatu* aditzerako proposatu bezala.

Bigarren hipotesia egokiagoa dela ematen du, Garatermen corpus espontaneoak eta HartaEusek eskaintzen dituzten datuek norabide horretara jotzen baitute. Izan ere, corpus bi horietan lekukotzen den absolutibodun erabilera bat dator ahotsak.eus

eta ZT corpusetan ondorioztatutako erabilera batekin, osagarri [- bizidun] [- mugimendu]-duneko kasuetako erabilerarekin alegia. Egia esan, ahotsak.eus-en joera ematen duen hori finkatuago agertzen zaigu Garaterm edo HartaEus-en, hots, testu akademikoetan. Egoera hori ez da harritzekoa, hizkera orokorrean alternantzia hori aspaldikoa bada ere, testu akademikoek ustiatu eta finkatuko zuten. Izan ere, testu akademikoen ezaugarriek (terminoak diren izenen erabilera handiak, izen abstraktu eta bizigabeen ugaritasunak, besteak beste) bat egiten dute erabilera horren propietateekin, hots, *jarraitu* aditzaren osagarriak [- bizidun] [- mugimendu] motakoak izatearekin. Hortaz, mota horretako osagarrien erabilera handitu eta, horiek absolutiboa hobesten dutenez, kasu horren erabilera areagotuko zatekeen testu akademi-koetan.

Gauzak horrela, *jarraitu* aditzaren erregimen-aldaketa predikatu horren osagarrien izaerak bultzatuko zukeen, aditz horren esanahi ohikoaren ñabardura bati egokitzeke, (a2) mugimendu metaforikoaren adierari hain zuzen. Gainera, erabilera horren atzean arrazoinamendu metaforikoa daukagu, aditza igarotzen baita mugimendu fisiko bat (A puntu geografikotik B puntu geografikora(nts) joatea) adieraztetik mugimendu metaforiko bat (esaterako, prozesu batean A-B-C-D urratsak egitea) denotatzera. Lakoffek (1993) eta Temmermanek (2000 apud Zabala et al., 2014, 154. or.) esan bezala, aldaketa horiek ohikoak dira izen abstraktuetan ohikoak diren testuetan; hortaz, hizkera akademiko eta espezializatueta. Argudio horiek aintzat hartuta, badirudi hizkuntzan jadanik zegoen joera, [- bizidun] [- mugimendu] motako osagarriak absolutiboz markatzea alegia, hautatu dutela adituek testu akademiko eta espezializatuetarako eta, beraz, hizkuntzaren barruan zegoen polimorfismoa espezializatze bidean legokeela. Hemen jorratutakoak hizkuntzen ohiko garapen-mekanismoak direnez, ez litzateke garapen horren kontra arautu behar eta, horrenbestez, bere erabilera testuinguru jakin batzuetan onartu beharko litzateke.

8. CORPUSAK ETA HIZTEGIAK

Ahotsak.eus corpora. (Badihardugu Euskara Elkarteak). <https://ahotsak.eus/>
 Cénac-Moncaut, J. (1814-1871). *Dictionnaire gascon-français: dialecte du département du Gers; suivi d'un Abrégé de grammaire gasconne*. Didron.
Corpus historikoa. (Euskara Institutua). <https://www.ehu.eus/etc/ch/>
Dabilena – Web-corpora. Interneten dabilen euskara. (Elhuyar Fundazioa). <https://dabilena.elhuyar.eus/>
Diccionario panhispánico de dudas. (Espainiako Errege Akademia). <http://www.rae.es/dpd>
Eguno testuen corpora. (Euskara Institutua). <https://www.ehu.eus/etc/>
Elhuyar hiztegia. (Elhuyar Fundazioa). <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>
Ereduzko prosa gaur. (Euskara Institutua). <https://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>
Euskal klasikoen corpora. (Euskara Institutua). <https://www.ehu.eus/ehg/kc/>
Euskaltzaindiaren hiztegia. (Euskaltzaindia). https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabiltatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu

Garaterm: euskararen erregistro akademikoen garapenaren ikerketarako lan-inguru-nea. (UPV/EHU eta Elhuyar Fundazioa). http://garaterm-corpusa.ixs.eus/Gaztelaniaren_corpus_diakronikoa (CORDE). (Espainiako Errege Akademia). <http://www.rae.es>

Lexilogos: dictionnaire gascon. (Lexilogos). https://www.lexilogos.com/gascon_dictionnaire.htm

Orotariko euskal hiztegia. (Euskaltzaindia). https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=1694&lang=eu

Zientzia eta teknologiaren corpusa. (UPV/EHU eta Elhuyar Fundazioa). <http://www.ztcopusa.eus/cgi-bin/kontsulta.py?mota=arrunta>

9. ERREFERENTZIAK

- Alberdi, X. (2002). Hizketa formula ohikoak. In X. Artiagoitia, P. Goenaga, J. A. Laka-rra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (53.-71. or.). UPV/EHU. <https://doi.org/10.1387/asju.9632>
- Alberdi, X. (2010). A typology of calques. The calquing mechanism in contemporary Basque. *Estudios de Lingüística. Universidad de Alicante*, 24, 13-35. <https://doi.org/10.14198/ELUA2010.24.01>
- Duhalde, M. (2023). *Lapurdi itsas hegiko euskara* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. UPV/EHU.
- Epelde, I. (2003). *Larresoroko euskara* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. HABE http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Irantzu_Epelde_TESI.pdf
- Etxebarria, J. R. (2002). Euskal prosa zientifikoaren inguruan. *Hegats. Literatur Aldizkaria*, 30, 63-75. <https://old.uberan.eus/wordpress/wp-content/uploads/2018/06/30Hegats.pdf>
- Euskaltzaindia. (1991). *Euskal gramatika. Lehen urratsak I.* Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/6844.pdf
- Euskaltzaindia. (2018). *Euskara batuaren eskuliburua.* Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161
- Euskaltzaindia. (2021). *Euskal gramatika.* Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_liburuak&task=gramatika&Itemid=1765&lang=eu
- Fernández, B. & Ortiz de Urbina, J. (2010). *Datiboa hiztegian.* UPV/EHU. <https://www.ehu.es/documents/2430735/2650047/datiboa-hiztegian-completo.pdf/fb0820bc-b40c-45a4-be33-a18edd984efa?t=1406035964000>
- Fernández, B. & Ortiz de Urbina, J. (2012). Dative (first) complements in Basque. E. Carrilho & B. Fernández (arg.), *Syntactic microvariation in Westmost European languages. Journal of Portuguese Linguistics*, 11(1), 83-98. <https://doi.org/10.5334/jpl.93>
- Haugen, E. (1983). The implementation of corpus planning: theory and practice. In J. Cobarrubias & J. A. Fishman (arg.), *Progress in language planning. International perspectives* (269.-289. or.). Mouton Publishers. <https://doi.org/10.1515/9783110820584.269>

- Heine, B. (2003). Grammaticalization. In B. D. Joseph & R. Janda D. (arg.), *The handbook of historical linguistics* (575.-601. or.). Blackwell Publishing. <https://doi.org/10.1002/9780470756393.ch18>
- Lakoff, G. (1993). The contemporary theory of metaphor. In A. Ortony (arg.), *Metaphor and thought* (202.-251. or.). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9781139173865.013>
- Martínez, M. A. (2007). Sobre la (morfo)sintaxis de las lenguas de especialidad. In E. Alcaraz, J. M. Martínez & F. Yus (arg.), *Las lenguas profesionales y académicas* (13.-25. or.). Ariel Lenguas Modernas.
- Milroy, J. & Milroy, L. (1985). *Authority in language. Investigating language prescription and standardisation*. Routledge.
- Montoya, E. (2004). Urdazubi eta Zugarramurdiko euskararen norabidea. *FLV*, 96, 249-270.
- Mounole, C. (2011). *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique*. [Doktore-tesia, UPV/EHU eta Michel de Montaigne – Bordeaux III Unibertsitatea]. TESEO. <https://www.educacion.gob.es/teseo/mostrarRef.do?ref=959808>
- Odria, A. (2017). *Differential object marking and datives in Basque syntax*. [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/29766>
- Sagarzazu, T. (2005). *Hondarribiako eta Irungo euskara*. Alberdania. <https://www.irun.org/enlaces/00017035.pdf>
- Salaberry, B. (2002). Mugerreko euskara: hurbilketa bat. Euskara batuaren eragina euskalkian. *Lapurdum*, 7, 353-355. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.1054>
- Timmis, I. (2015). *Corpus linguistics for ELT: research and practice*. Routledge.
- Zabala, I. (2008). Gramatika- eta estilo-arauak espezialitate-hizkeren garapen diskurtsoari begira. In I. Ugarteburu & P. Salaburu (arg.), *Espezialitate hizkerak eta terminologia II: euskara estandarra eta espezialitate hizkerak* (227.-241. or.). UPV/EHU. <http://ixa.si.ehu.es/node/4022>
- Zabala, I. (2018). Euskararen lexiko espezializatuaren garapenaz eta harmonizazioaz. In G. Bilbao, P. Gartzia, & M. K. Garmendia (arg.), *Bai, jauna, bai: fisika euskaraz! Jose Ramon Etxebarria irakaslearen omenez* (349.-358. or.). UEU. <https://www.ixaeus/node/11544>
- Zabala, I., San Martín, I. & Lersundi, M. (2014). Linguistic and sociolinguistic factors that influence the detection, implantation and circulation of natural terminology in academic uses of Basque. In P. Dury, J. C. de Hoyos, J. Makri-Morel, F. Maniez, V. Renner & M. B. Villar (arg.), *La néologie en langue de spécialité. Détection, implantation eta circulation des nouveaux termes* (141.-164. or.). CRTT. http://www.ixaeus/sites/default/files/dokumentuak/3176/Zabala_SanMartin_Lersundi_2014.pdf
- Zalbide, M. (1995). Zientzi hizkuntza irakaskuntzan: euskara teknikoaren izaeraz, iturburuaz eta egungo erabilmoduaz. In I. Dendaluze (arg.), *XII congreso de estudios vascos: estudios vascos en el sistema educativo = Eusko Ikaskuntza hezkuntza sarean* (281.-290. or.). Eusko Ikaskuntza.
- Zuloaga, E. (2022). *Mendebaleko euskara zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografía*. Euskaltzaindia & UPV/EHU.